

KOSTU EGITURAK

Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Jakinda gure enpresak unibertsitateko ikasleei zuzendutako aplikazio bat dela, gure kosturik garrantzitsuenak kostuak finkoak dira, baita horiek minimoak izatea ere. Gure merkatua aztertuz, badakigu gure aplikazioa doan izan behar duela, bestela, ikasle askok ez lukete erabiliko. Beraz, aplikazioa sortzeko eta lantzeko kostua finkoa eta baxua izatea ziurtatu behar dugu, horrei ahalik eta mozkin handiagoak atera ditzagun. Kostu aldakor asko edukiko bagenitu, gure aplikazioaren kalitatea jeitsi egingo litzateke eta horrela jarraituko bagenu bezeroek gure zerbitzuak erabiltzeko ordaindu egin beharko lukete eta horrek kalte izugarriak ekarriko dute, adibidez, bezeroak eta dirua galtzea. Baina hori ez da gertatuko, jakinda gure kideetako bat informatikoa dela eta bera zuzenduko da aplikazioa sortzea, eta beste kide bat administrazioan jardungo du.

Hori dena esanda, gure negozio-eredua kostuetan oinarritutakoa izango da. Kostuak ahalik eta txikienak izatea espero dugu baina gure zerbitzuearen kalitatea zainduz, guretzat kalitatezko zerbitzu bat eskeintzea garrantzitsua delako baina muga batzuen barruan.

Jaikinik zein den gure bezero mota pentsatzen dugu aplikazio edo zerbitzu doan baten bila ibiliko direla; azken finean, aplikazio bati prezioa jartzean bezeroak murrizten direlako. Gainera, pentsatzen dugu hasiera batean aplikazioa mundura zabaltzeko eta fama lortzeko doan izanik aukera gehiago izango dituela, ez delako dirurik galtzen aplikazioa deskargatzen eta horrek eragingo duelako zabalkuntza errazago bat izatea.

Baina bestalde, baita ere uste dugu oso garrantzitsua dela aplikazio baten funtzionatzeko kalitatezko zerbitzu bat eskeintzea, horrek erakartzen eta mantentzen dituelako bezeroak gure aplikazioa erabiltzea.